

ESPAZIO PUBLIKOETAKO BIZIKIDETZA HOBETZEA



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Aire zabaleko
eremuak eta eraikinak

Espazio publikoetako bizikidetza hobetzea

Espazio publikoek zerikusi handia dute hiri batek ematen duen lehen irudiarekin. Izan ere, herritarrek espazio publikoetan, oro har, izaten dituzte harremanak eta ematen dute denbora gainerako auzokideekin.

Talde eragileak eta Udalak egindako Ekintza Planean jasota zeuden jarduketa batzuk, espazio publikoetako bizikidetza hobetzeko. Hain zuzen, garatu beharreko funtsezko arlotzat hartzen zuen planak bizikidetza, eta zenbait alderdi lantzen zituen hura hobetzeko, batez ere belaunaldi desberdinetako kideen artekoa.

Ermua, Hiri Lagunkoia Adinekoekin proiektuaren talde eragileak gogoeta lan bat egin zuen, espazio publikoak partekatzen dituzten adin desberdinetako pertsonen arteko harremanak nola hobetu aztertzeko. Prozesuaren ondoren, 3 informazio panel ezarri zituen, pertsona guztien arteko bizikidetza errazten duten elementu eta portaerei buruzko oinarritzko mezuak ezagutarazteko. Orbe Kardenalaren plazan, San Lorentzoko parkean eta San Pelaio plazan ezarri ziren panelak, hain zuzen ere jende ugari —bai adinekoak, bai gazteak— biltzen den eremuetan, helburu honekin: batik bat pertsonak partekatutako espazio publikoetan errespetua sustatzea.

Ekimenak beste proiektu estrategiko bat izan du lagungarri: Ermua, Hiri Hezitzailea izenekoa (Haurren Kontseilua jarduera-ildo nagusietakoa duena). Proiektu hori aitzindaria izan zen Ermuko parkeetako bizikidetzaren gaia jorratzen. Haren bidez, udalerriko zenbait eremutan «Jolastu errespetuz» mezua jarri zuten, eta lehendik zeudenak, «Debekatuta dago baloian jokatzea» ziotenak, kendu.

Hortaz, talde eragileko kideek, Haurren Kontseilukoekin elkarlanean, paneletan jarri beharreko idazkuna landu zuten, arrazoiak elkarri azalduz. Hainbat lan saioen ostean eta talde bakoitzak bere kabuz hausnartu eta gero, paneletan idatzi beharreko mezua onartu zuten. Geroago, beste 25 plaka ezarri zituzten udalerrian.

Bi lantaldeak, alkatea eta talde teknikoko zenbait kide elkartu zituen topaketa batean ezarri ziren panelak. Horrela, merezitako nabarmentasuna eman zitzaion ekitaldiari. Guztien artean, paneletan idatzitako mezuak errepasatu zituzten: nola sustatu paperontzien erabilera, zuhaitzak eta lorategiak, plazak eta parkeak zaintzea eta nola jokatu baloi, bizikleta eta patinekin, gainerako pertsonak errespetatuz.

Ekimen horiez gain, talde eragileak belaunaldiarteko lantegiak egiteko aukera identifikatu zuen, lehen hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleekin bizikidetza lantzeko. Jarduera hori udalerriko ikastetxeen esku jarriko da ikasturtean zehar, profesional batek, ikasleek eta taldeko zenbait kidek gidaturik, gizabidea, bizikidetza eta antzeko balioak jorratzeko helburuz.

Ermua, Hiri Lagunkoiaren I. Ekintza Plana 2021eko uztailan onartu zuen osoko bilkurak, aho batez, eta sentsibilizazioa eta bizikidetza hobetzea da jasotzen dituen proposamenetako bat.

1. Erakunde sustatzaileak

Ermuko Udala, talde eragilea, Haurren Kontseilua, ikastetxeak.

2. Erakunde mota

Publikoa.

3. Xede taldea

Herritarrak oro har.

4. Lurralde eremua

Ermua (Bizkaia).

5. Egoera

Ezartzeko fasean.

6. Etiketak

Errespetua, bizikidetza, lagunkoitasuna, espazio publikoak, gizabidea.

7. Helburuak

Helburu orokorra:

Zaila dela badakigu ere, Ermua hiri lagunkoiagoa izatea adinekoekin eta hurrekin, eta bertako espazio publikoak topaketarako, bizikidetzarako eta errespeturako lekuak izatea.

Berriazko helburuak:

Espazio publikoetako bizikidetza arazoan ondorioz Herritarren Segurtasunak jasotako intzidentzia kopurua jaistea.

Adinekoek eta hurrek espazio publikoetako bizikidetza hobetu izanaren pertzepzioa izatea.

8. Metodologia

Talde eragilearen hasierako gogoeta saioen ostean, eta Ekintza Plana aztertu ondoren, espazio publiko batzuetan bizikidetza hobetu beharra zegoela ondorioztatu zen. Bizikidetza arazorik handienak adin desberdinetako pertsonen artean gertatzen ziren (adinekoen eta haurren artean).

Intzidentziarik handieneko lekuen eta bizikidetza hobetzeko moduaren diagnostiko zehatzagoa egiteko, bilera batzuk egin ziren Herritarren Segurtasunarekin, eta intzidentzien kopurua eta arrazoiak aztertu ziren.

Haurren Kontseiluarekin ere koordinazio saioak egin ziren, horrek ere arazoa identifikatua baitzuen bere gogoeta saioetan (horregatik jarri zituzten «Jolastu errespetuz» zioten kartelak, espazio publikoetako bizikidetza hobetzea xede zuen ekimena, zalantzarik gabe).

Bilera horien emaitzaz sortu ziren bizikidetza hobetzeko ideiak eta ekimenak, hala nola hauek:

- Tamaina handiko 3 MUPI jartzea jende ugari biltzen den espazio ireki batzuetan.
- Tamaina txikiagoko 25 plaka jartzea adinekoak eta haurrak elkartzen diren herriko espazio guztietan.
- Ikastetxeetan arazoz sentsibilizatzea, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin egindako solasaldien bidez, ekimen horiek belaunaldi berrietan finkatuz joateko.

9. Alderdi berritzaileak

Ez dakigu berritzailezat har daitekeen jardunbide egoki hau aurrera eramateko Ermuko Udaleko hainbat area (Hirigintza, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak eta Herritarren Segurtasuna) eta teknikari inplikatu izana eta koordinatuta lan egin izana.

Azpirarratzekoak dira, orobat, zeharkako bi proiektu estrategikoen arteko koordinazioa eta elkarlana: Hiri Hezitzailea eta Hiri Lagunkoia. Bi proiektuok aholku batzordeak sortu dituzte udal politiketan aholkularitza emateko, eta horrek proiektua aberasten eta garatzen lagundu du, zalantzarik gabe.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Proiektuaren ebaluazioa ez da erraza izango, batez ere epe laburrera; izan ere, gure ustez, herritarren artean aldaketa txikiak izango dira urtero, eta ez dira berehalakoan ikusiko.

Kontuan izan behar dugu ezinezkoa dela adinekoek eta gazteek partekatzen dituzten leku ireki guztietara iristea. Gainera, zaila da bizikidetza neurtzea; horregatik, sentsazioen bidez eta adineko zein gazteengandik jasotako argibideez gidatu beharko gara.

Dena den, bada jaso dezakegun adierazle objektibo bat: epealdi jakin batean Herritarren Segurtasunak jasotzen dituen intzidentzien kopurua, ea behera egiten duen.

Espero dezagun epe ertainera —hemendik 3 bat urtera— espazio publikoetako bizikidetzeta eta errespetua hobetuz joatea eta gure lanaren xede diren haurrak aldaketa baten abiapuntua izatea.